

2019 / 2020 ikasturtea

BPSO ERORKETAK: OSAKIDETZAREN LAGUNTZAREKIN LANA

Laura Castro Azurmendi

LABURPENA

Sarrera: Erorketak oreka galtzea eragiten duten nahigabeko gertakariak dira, lurraren edo beste azalera sendo baten aurka gorputza jotzea eragiten dutenak *Osasunaren Munduko Erakundearen* (OME) arabera. Erorketek lesioak eragiten dituzte kasuen % 50ean eta, ondorioz, pazienteen antsietate maila igo egiten da, konfiantza galtzen dute beraien mugikortasunean, egunerokotasuneko jarduerak burutzean segurtasun falta somatzen dute, ospitaleko egonaldiaren luzeera igo egiten da, instituzio soziosanitarioetan sartzearen arriskua handiagoa da eta osasun arretaren kostu ekonomikoa igo egiten da. Gainera, nahiz eta, osasun-ingurunean estrategia eta prebentzio ekintza ezberdinak garatu diren, erorketek osasun sistementzako erronka handia suposatzen dute. Guzti hau dela eta, 2018. urtean Zumarragako Ospitalean BPSO erorketa programa martxan jarri zen, ebidentzian oinarritutako agiriak erabiliz, ahalik eta erorketa gehien saihesteko eta sortutako lesioak murrizteko asmoz.

Helburua: Lan honen helburu nagusia, erizaintzako laugarren mailako ikasle moduan erorketen inguruko BPSO programan parte hartzea da.

Proiektuaren garapena: Proiektuan zehar ekintza ezberdinak gauzatu dira: alde batetik, proiektuaren antolakuntzaren eta gestioaren inguruko informazioa eskuratzeko formazio bilerak eta antolaketa bilerak egin dira; bestetik, erorketen inguruko datuak jasotzeko eta aztertzeko ebaluazio jarduera batean parte hartu da; Ildo beretik, difusio jarduera, proiektua ezagutzera emateko burutu da eta, azkenik, ekintzen emaitzak eta ondorioetan, jasotako datuen grafikoak ageri dira.

Gogoetazko jarduna: BPSO bezalako proiektu batean parte hartzea gaitasun ezberdinak garatzeko lagungarria da. Lan mota honetan kompetentzia ezberdinak garatzen dira; horien artean, gestioaren inguruko jakintzak bereganatzen dira eta diziplina anitzeko taldean lan egitearen garrantzia ikasten da. Gainera, ziurra den arreta bermatzeko, prebentzioaren garrantzia ikusi da. Horrenbestez, horrelako proiektuak osasun arreta egokia bermatzeko oso beharrezkoak dira.

Hitz gakoak: Erizaintza zainketak, erorketak eta BPSO.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. HELBURUAK	5
2.1. IKASLEAREN HELBURUAK.....	5
2.1.1. Helburu nagusia.....	5
2.1.2. Helburu espezifikoak.....	5
2.2. PROIEKTUAREN HELBURUAK.....	5
2.2.1. Helburu nagusia.....	5
2.2.2. Helburu espezifikoak.....	5
3. PROIEKTUAREN GARAPENA	5
3.1. FORMAZIO BILERAK.....	5
3.2. ANTOLAKETA BILERAK.....	6
3.3. EBALUAZIO JARDUERAK.....	9
3.4. DIFUSIO JARDUERAK.....	10
3.5. EKINTZEN EMAITZAK ETA ONDORIOAK.....	10
3.5.1. Bildutako emaitzen ondorioak.....	11
4. GOGOETAZKO JARDUNA	12
5. BIBLIOGRAFIA	14
6. ERANSKINAK	16
1. Eranskina: formazio bileretan aurrera eramandako jardueren taula.....	16
2. Eranskina: 11. domeinuaren posterrak.....	17
3. Eranskina: osagaiak eta erorketa prebentzio unibertsalen adibidea.....	19
4. Eranskina: Fraser Health erorketen prebentzio neurri unibertsalen posterra.....	20
5. Eranskina: orduro araututako errondak.....	21
6. Eranskina: sakeleko txartelak.....	22
7. Eranskina: paziente bakoitzaren sexua, "ID", "CIC", adina, hitzordua eta hitzordu kopurua zehazten duen taula.....	23
8. Eranskina: ebaluazioa burutzeko eskuliburua.....	24

LABURDUREN AURKIBIDEA

RNAO: Registered Nurses' Association of Ontario / Ontarioko Erizain Profesionalen Elkarte.

BPSO: Best Practice Spotlight Organization / Jarduera Onenetan Oinarritutako Erakundea.

CCEC: Centros Comprometidos con la Excelencia en Cuidados / Zainketen Bikaintasunarekin konprometitutako zentroak.

Investén-iscii: La Unidad de Investigación en Cuidados y Servicios de Salud / Arreta eta Osasun Zerbitzuetako Ikerketa Unitatea.

CECBE: Centro Español para los Cuidados de salud Basados en la Evidencia / Ebidentzian Oinarritutako Osasun Arretako Espainiako Zentroa.

JB: Joanna Briggs Institute / Joanna Briggs Institutua.

ESI: Osasun Erakunde Integratua / Organización Sanitaria Integrada.

OME: Organización Mundial de la Salud / Osasunaren Mundu Erakundea.

ENEAS: Estudio Nacional sobre los Efectos Adversos ligados a la Hospitalización / Ospitaleratzearekin lotutako Ondorio Kaltegarrien Azterketa Nazionala.

APEAS: Estudio sobre la Seguridad de los Pacientes en Atención Primaria de Salud / Lehen Arreta Mailako Pazienteen Segurtasunaren Ikerketa.

1. SARRERA

Praktika egokiak gomendioak dira esperientziaren bidez, irizpideen bidez, ikuspuntuen bidez eta ikerketaren bidez jakituengatik aldatu daitezkeenak (Health Canada, 2008). Arlo kliniko edo lan-ingurune osasuntsu baterako gomendatutako praktiken laburpen sistematiko gisa ere ezagutzen dira, ebidentzia onenetan oinarritzen direnak eta osasun profesionalei eta zuzendariei beren erabaki kliniko eta administratiboetan orientabideak emateko diseinatuta daudenak. Gidaren garapenean talde garrantzitsuek parte hartzen dute, besteak beste, *Ontarioko Erizain Profesionalen Elkarteak* (RNAO), zeinek praktikara ebidentzia egokiena eramaten jarduten duen. Talde gehienak "Red Guideline International Network"ek biltzen ditu, besteak beste, Joanna Briggs Institutua, Scottish International Guideline Network eta National Institute for Health and Clinical Excellence. Nahiz eta talde hauetako batzuk, erizaintzako garrantzitsuak diren gai klinikoei heltzen dieten, ia beti lanbidearteko ikuspegi batetik, RNAOk erizain interbentzioetara moldatutako gomendioak biltzen ditu (1).

Best Practices Spotlight Organizations (BPSO) programaren edo Zainketen Bikaintasunarekin konprometituta dauden zentroen (CCEC) barnean, Ontarioko Erizain Profesionalen Elkartearengatik (RNAO) aukeratuak diren osasun erakundeak daude. Erakunde hauen helburua, ebidentzian oinarrituta dauden praktika egokien gidak ezartzea eta ebaluatzea da. BPSO proiektuaren helburua, osasun arretaren baitan ebidentzian oinarritutako praktikak gehitzea da. Horretarako, RNAOk sortutako praktika kliniko egokien gidak inplantatzera, ebaluatzerara eta mantentzerara konprometitzen dira zentroak (2).

RNAO, erizain erregistratuak, praktikanteak eta ikasleak ordezkatzeko dituen erakunde profesionala da. Elkartearen helburua, ebidentzia praktika klinikora gerturatzea da; horrela, zainketetan dagoen aldakortasuna murrizteko (3). Horretarako, praktika kliniko egokien gidak argitaratzen dituzte, ebidentzian oinarrituta daudenak, erabaki klinikoak bermatzeko eta erizainek beren egunerokotasunean erabili ahal izateko (1). 1925. urtetik RNAO politika publiko osasuntsuen alde mintzatu da, erizain praktikan bikaintasuna sustatu du, erizainek osasun sistemaren konfigurazioan egindako ekarpena areagotu du eta erizainei nahiz pazienteei eragiten dieten erabaki klinikoetan eragina izan du (4).

RNAOk sostengua ematen die formalki praktika klinikoaren gidak hiru urteko denboraldian ezartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartzen duten erakundeei. BPSO programa 2003. urtean jarri zuen martxan RNAOk. Bi BPSO modalitate daude, "zuzenekoa" eta "BPSO Host" izenekoa. "Zuzenekoak" direnetan, erakundeak zuzenean kontaktua du RNAOrekin, zeinek programa gainbegiratzeko duen. Aldiz, "BPSO Host" direnetan, Host-

a programaren alderdi guztien arduraduna da eta zentro koordinatzaile izenez ere ezagutzen dira (2).

Espanian, BPSO programa ebidentzian oinarritutako praktikarekin konprometitutako hiru erakundeen arteko akordioaren ondorioz sortzen da; hala nola, *Arreta eta Osasun Zerbitzuetako Ikerketa Unitatearen* (Investén-iscii), *Ebidentzian Oinarritutako Osasun Arretarako Espainiako Zentroaren* (CECBE) eta RNAOren akordioaren ondorioz. Akordio hori dela eta, Investén-iscii-k eta CECBEk "Espainiako Host"-a osatzen dute, zentro koordinatzailea dena. Horren helburua, praktika egokietan oinarritutako zainketak babestea, erraztea eta sustatzea da, RNAOk sortutako gidatan oinarrituta daudenak. Espanian BPSO programa 2012. urtean jarri zen martxan. Programa honekin, zainketen bikaintasunarekin bat etortzen diren zentroak batu nahi dira, zeinek ikerketan oinarritutako zainketak bultzatzen dituen (5,6).

RNAO elkarlanean dabil Karlos III. *Arreta eta Osasun Zerbitzuetako Institutuaren Ikerketa Unitatearekin* (Investén-iscii) eta *Espainiako Joanna Briggs Institutuko Zentro Kolaboratzailearekin* (JBI). Horien xedea, CCEC izan nahi duten instituzioei deitzea da. Deialdiak hiru urtetik behin egiten dira (7). Organizazioek BPSO programaren barnean jarduteko hiru urteetan zehar, gutxienez hiru praktika egokien gida inplantatu eta ebaluatu behar dituzte. Behin hiru urteak igarota eta helburuak bete ondoren, BPSO estatua lortzen dute eta bi urtetik behin berritzen da. Horretarako, bi bide daude: alde batetik, inplantatutako gidak instituzio osora hedatzea eta, bestetik, praktika kliniko egokien gida berri bat aukeratzea eta lantzea (8).

Goierri-Urola Garaia *Erakunde Sanitario Integratua* (ESI), hobekuntzari bideratuta dagoen osasun organizazioa da. Aitortutako hainbat sari ditu ESlak; besteak beste, 2019. urtean gestio antzindari moduan zilarrezko A saria lortu zuen (9). 2017. urtean BPSO programan aurkeztea erabakitzen da, eta 2018. urtean proiektua martxan jartzen da. Aukeratutako gidak lau izan dira: erorketen prebentzioa eta horiengatik sortutako lesioen gutxiagotzea; sarbide baskularren zainketa eta mantenua; lehen arreta mailan haurren loditasunaren prebentzioa, eta erizaintza lidergoaren garapena eta mantenua. Hauek, erizainen lana bultzatzeko, ikusgaitasuna emateko eta lidergoa bultzatzeko aukeratuak izan dira.

Goierri-Urola Garaiko ESlan erorketen inguruan burutzen ari den BPSOari helduz, erorketek arazo garrantzitsua eragiten dute osasun publikoan; batez ere, adineko pertsonetan. Kalkulatzen da 65 urtetik gorako pertsonen % 30ak eta 80 urtetik gorako % 50ak urtean gutxienez erorketa bat jasaten duela. Hau dela eta, ebidentzian

oinarritutako zainketak sustatzea garrantzitsua da, ahalik eta erorketa gehien ekiditeko (10).

Erorketak oreka galtzea eragiten duten nahigabeko gertakariak dira, lurraren edo beste azalera sendo baten aurka gorputza jotzea eragiten dutenak *Osasunaren Mundu Erakundearen* (OME) arabera. Kalkulatzen da urtero hilkorrak diren 646.000 erorketa gertatzen direla; horrela, mundu mailan bigarren heriotza kausa dira, trafiko istripuek sortutako traumatismoen atzetik. Kontuan hartu behar da, mundu mailan erorketengatik ematen diren heriotza kausa gehienak, 60 urtetik gora duten pertsonen eragiten dietela (11).

Urtero 37,3 milioi erorketa ematen dira eta, nahiz eta hilkorrak ez izan, mediku arreta behar izaten dute. Erorketen ondorioz desgaitasuna jasaten duten pertsonen, batez ere, adineko jendeak, probabilitate handiagoa du luzera osasun arreta jasotzeko beharra edo ospitaleratuta egoteko beharra izatea. Jauskerekin erlazionaturiko lesioek kostu ekonomiko handia dute. Adibidez, Finlandian 65 urtetik gorako pertsona batek lesio bat izaten duenean, osasun sistemari 3.611 dolarreko kostua eragiten dio. Kanadatik eratorritako datuei erreparatuz, eraginkorrak diren prebentzio estrategiak aplikatzeak, urtean 120 milioi dolar baino gehiagoko aurrezpena suposatuko luke (11).

Ospitaleratzeekin Erlazionaturiko Efektu Desiragaitzen Ikerketa Nazionalak (ENEAS) 2005. urtean burututako ikerketen arabera, ospitaleratzean ematen diren efektu desiragaitzen % 7,6a gaixoen jasotako zainketekin erlazionaturik zeuden; bestetik, *Lehen Arreta Mailako Pazienteen Segurtasunaren Ikerketak* (APEAS) 2007. urtean egindako ikerketaren arabera, efektu desiragaitzen % 6,5a pazienteek jasotako zainketekin erlazionaturik zeuden; ordea, internazionalki egin berri diren ikerketek, ehunekoaren zifra igotzen ari dela adierazten dute. Horren ondorioz, zurraren den arreta bermatzeko, beharrezkoa da prebentzioa sustatzea eta egon daitezkeen arriskuen inguruan jardutea. Garrantzitsua da zainketak ematerakoan, segurtasuna areagotzeko, gomendio ezberdinak jarraitzea (12-14):

1. Erizaintzako osasun arreta prozesua aplikatzea zainketen plangintza egitean; horretarako, pazientearen egoeraren inguruan jasotako datuak interpretatuz eta identifikatutako beharren arabera erabaki klinikoak hartuz.
2. Zainketen erantzuna modu jarraian ebaluatzea, aldaketak monitorizatuz.
3. Pazienteekin, familiarrekin eta beste osasun profesionalekin komunikazio eraginkorra mantentzea.
4. Eginbeharrak dagokion profesionalari eskuordetzea.
5. Ezarritako protokoloak eta prozedurak jarraitzea.
6. Medikazioa modu egokian administratzea.

7. Taldearen funtzionamendua ezagutzea; eta materialen eta instrumentalen kudeaketa egokia egitea.

Osakidetzak neurri ezberdinak hartu ditu, zainketekin erlazonaturik dauden gertakari kaltegarrien eragina murrizteko. Ospitaleratuta dauden pazienteen erorketak mendekotasuna duten pertsonetan eta adineko pertsonetan ematen dira gehienbat. Erorketek lesioak eragiten dituzte kasuen % 50ean eta, ondorioz, pazienteen antsietate maila igo egiten da, konfiantza galtzen dute beraien mugikortasunean, egunerokotasuneko jarduerak burutzean segurtasun falta somatzen dute, ospitaleko egonaldiaren luzeera igo egiten da, instituzio soziosanitarioetan sartzearen arriskua handiagoa da eta osasun arretaren kostu ekonomikoa igo egiten da. Osakidetzan, 2016.urtean, akutuen ospitalean alta jasotako pazienteen % 0,9ak ospitaleratzean zehar erorketa bat jasan zuen; bitartean, egonaldi ertaineko eta luzeko ospitaleratzeetan eta Buru Osasunaren Sarean, tasa % 2,7koa izan zen (12).

Nahiz eta, osasun-ingurunean estrategia eta prebentzio ekintza ezberdinak garatu diren, erorketek osasun sistementzako erronka handia suposatzen dute; izan ere, inguruneko arrisku faktoreek eta arrisku faktore pertsonalek eragina dute. Erorketa tasa murrizteko, arriskuen balorazio goiztiarra eta jarraia egin behar da; esku-hartze prebentiboa sustatu behar da, eta zainketetan pazienteen nahiz familiarren parte hartzea bultzatu behar da (12).

Goierri-Urola Garaiko ESlan burutzen ari den erorketen inguruko BPSO programa, Zumarraga Ospitaleko Barne Medikuntza Unitatean aplikatzen da, baita Zumarragako eta Azkoitiako Osasun Zentroetan ere. Barne Medikuntza Unitatea aukeratzearen arrazoia, osasun arazo asko artatzen dituen eta adin aurreratuko pazienteak dituen unitatea delako da; Zumarragako Osasun Zentroa paziente asko zaintzen dituelako aukeratu da eta Azkoitiako Osasun Zentroa kontrakoarengatik. Programa aurrera ateratzeko, osasun profesional ezberdinen artean, diziplina anitzeko lantaldea sortu da, non erizainak, erizaintzako laguntzaileak, ospitaleko fisioterapeuta, medikuntza prebentiboa eta zeladoreak aurkitzen diren. Egun, mantentze-lanetarako teknikariak proiektuan parte hartzeko beharra ikusi da. Programa aurrera ateratzeko, RNAOk sortutako "Prevención de Caídas y Disminución de Lesiones derivadas de las Caídas" praktika kliniko egokien gida erabili da, non gomendio ezberdinak ageri diren; horren helburua, ebidentzian oinarritutako agiriak erabiliz, erorketa gehien saihestea eta sortutako lesioak murriztea da (15).

2. HELBURUAK

2.1. IKASLEAREN HELBURUAK

2.1.1. Helburu nagusia

Zumarraga Ospitalean erorketen inguruko BPSO programan parte hartzea erizaintzako laugarren mailako ikasle moduan.

2.1.2. Helburu espezifikoak

- Diziplina anitzeko lantalde batean nola lan egin ikastea.
- Ikasle moduan taldeari laguntza eskaintzea eta iritzia azaltzea.
- Gestioaren inguruan esperientzia bereganatzea.
- Pazienteen historia klinikoaren erreibisatuz erorketen ebaluazioa burutzea.
- Difusio jarduerak burutzea baliabide ezberdinak erabiliz; adibidez, hitzaldien bidez.

2.2. PROIEKTUAREN HELBURUAK

2.2.1. Helburu nagusia

Erorketa kopuruak eta horiengatik sortzen diren lesioen kantitatea eta larritasuna murriztea.

2.2.2. Helburu espezifikoak

- Ingresaturik dauden pazienteen edo lehen arreta mailan kontsultara joaten diren 65 urtetik gorako erorketa arriskua ezagutzea.
- Ariketa fisikoa sustatzen duten osasun profesionalekin elkarlanean aritzea.
- Biztanleria kontzientziatzea erorketen arriskuen inguruan eta alderdi prebentiboaren inguruan gehiengoak ekiditeko.
- Erorketen prebentzioak duen garrantziaz osasun profesionalak kontzientziatzea.
- Erorketen erregistroa sustatzea.

3. PROIEKTUAREN GARAPENA

Erorketen inguruko proiektuan jarduera ezberdinak burutu dira eta bost multzotan sailkatzen dira: formazio bilerak, antolaketa bilerak, ebaluazio jarduerak, difusio jarduerak eta ekintzen emaitzak eta ondorioak.

3.1. FORMAZIO BILERAK

Formazio bilerak, erizaintzako laugarren mailako ikasleak BPSO proiektuaren inguruan

prestakuntza jasotzeko burutu dira, Gradu Amaierako Lan mota honek eskatzen dituen kompetentzia guztiak garatzeko (ikus 1. eranskina).

2019ko abenduaren 18a.

Lehenengo bilera Donostiako Ospitalean, Aranzazu eraikineko 3. solairuko 6. salan egin da, bi ordu eta erdiko iraupenarekin. Bertan BPSO programan parte hartzen dugun EHU Donostia Erizaintzako 4. mailako ikasleak, bultzatzaileak, bildu gara eta Javier Ortizek (irakaskuntza burua) proiektuaren aurkezpena egin du. Era berean, erizaintzako zuzendariak agurtu gaitu. Bestetik, Donostia Ospitaleko zainketen metodologiaren erizain koordinatzaileak, erizaintzako metodologiaren aurkezpena burutu du, non metodologiaren, erregistratzearen eta ebaluatzearen garrantziaz hitz egin duen. Bilera honetan, bultzatzaileen artean proiektuaren inguruko egonezinak eta zalantzak aurkeztu dira.

2020ko urtarrilaren 23a.

Bigarren bilera Donostiako Ospitalean, Aranzazu eraikineko 3. solairuko 5. salan egin da, hiru orduko iraupena izan duena. Bertan, BPSO programan parte hartzen dugun EHU Donostia Erizaintzako 4. mailako ikasleak, proiektuaren bultzatzaileak, bildu gara eta bilera Javier Ortizek bideratu du. Batzar honetan, BPSOaren sustraiak ezagutu dira, eta era berean, RNAO, Carlos III Institutua, Investen, Joana Bridge eta "Evidencia en cuidados" azaldu dira.

Bilera honetan, Osakidetzako erizaintzako argazki ekitaldi batean parte hartu da.

2020ko otsailaren 26a.

Beasaingo Osasun Zentroan, M^a Victoria Salgadorekin, Goierri-Urola Garaia ESIko erizain gainbegiratzailea eta BPSO proiektuaren "Co-liderra" denarekin bilera, ordubeteko iraupenarekin. Elkartearen arrazoia, Goierri-Urola Garaia ESI inguruan BPSO programa ezartzeko arrazoia eta modua ezagutzea izan da. Zehazki, erorketen inguruko BPSOa ezartzearen arrazoiaren eta proiektu honen helburu nagusiaren eta zehatzaren inguruan hitz egin da.

3.2. ANTOLAKETA BILERAK

Antolaketa bilerak Zumarraga Ospitaleko erorketen inguruko BPSO programan parte hartzen duten osasun profesionalekin burutu diren bilerak dira. Proiektuaren metodologiari dagokionez, hasiera batean, "Prevención de Caídas y Disminución de Lesiones derivadas de las Caídas" praktika kliniko egokien gidan azaltzen diren gomendioetatik, proiektuan landuko direnak aukeratu ziren, ikaslea proiektuan sartu

baino lehen. Gomendioak proiektua osatzen dutenen artean aukeratuak izan dira, non kide bakoitzak kargu ezberdina duen; besteak beste, taldeko liderra, "Co-liderra", idazkaria, moderatzailea eta talde ebaluatzailea aurkitzen dira. Aurrez aukeratutako gomendioak hurrengoak dira:

- 1.1 gomendia: heldu guztiak ebaluatu erorketa arriskua dutenak identifikatzeko.
- 2.5 gomendia: indartze muskularra eta oreka lantzeko ariketak gomendatzea.
- 2.6 gomendia: sendagaien bateratzea.
- 3.1 gomendia: erorketa baten ondoren esku-hartzea.
- 5.3 gomendia: segurtasun txanda.

2020ko urtarrilaren 14a.

Zumarraga Ospitaleko Goizalde eraikinean BPSO erorketa programan parte hartzen duten kideekin lehenengo bilera. Bilera 13:30etatik 15:00retara izan da. Bileraren hasieran, taldearen aurrean aurkezpena erizaintzako laugarren mailako ikasle moduan. Mainer Irazustaren aurkezpena, proiektuaren erizain bultzatzailea eta 4. mailako ikaslearen "Co-tutora" moduan aurkezten dena. Ondoren, Osanaiako 11. domeinuaren inguruan egindako posterra banatu da, aurreko bileretan landuta zegoena (ikus 2. eranskina).

Jarraian, "Prevención de Caídas y Disminución de Lesiones derivadas de las Caídas" praktika kliniko egokien gidan azaltzen den 5.3 gomendia landu da. Gomendio honen helburua, pazientearen beharrak ezagutzea da, horrela ahalik eta erorketa gehien ekiditeko. Hala, segurtasun txandan kontuan izan beharrekoak zehaztu dira:

- 1- Ohea altuera baxuan jarri.
- 2- Gaueko argiak piztuta eduki.
- 3- Tinbrea eta objektu pertsonalak pazientearen eskura jarri.
- 4- Oinetako egokiak, hau da, itxiak erabili.
- 5- Oheko nahiz aulkiko galgak jarri.
- 6- Pazientea oheratuta dagoenean barandak igota eduki.
- 7- Pazienteari, laguntza behar izanez gero deitu egin behar duela azpimarratu.

Aurreko "chek-list" a zehazteko "Prevención de Caídas y Disminución de Lesiones derivadas de las Caídas" izeneko praktika kliniko egokien gidan azaltzen diren eranskinak erreferentzi moduan hartu dira (ikus 3., 4. eta 5. eranskina).

Behin "chek-list" a zehaztu ondoren, Barne Medikuntza Unitatean ezartzeko aurkitzen

diren **eragozpenak eta erraztaileak** azaldu dira:

Eragozpenak:

- Lan karga handia Barne Medikuntza Unitatean.
- Osasun profesionalen motibazio falta.
- Aldaketa askoko momentua, BPSO asko martxan.
- Logelatan dagoen argitasun falta.
- Logelak txikiak izatea.
- Pazienteek duten informazio falta. Osasun Profesionalek, erorketen prebentzioaren triptikoa pazienteari irakurtzearen eta azaltzearen falta, pazientearen ulermenerako.
- Oheak ezberdinak izatea.
- Barne Medikuntza Unitatean armairuek galgak ez izatea.
- Besaulkiek soilik galgak atzean izatea.

Erraztaileak:

- Taldeko bultzatzaileen alde zuzeneko jarrera ona.
- Barne Medikuntza Unitatean komun moldagarriak izatea.
- Segurtasun txanda informalak burutzen direla; hau da, modu inkontzientean zerrendako hainbat puntu gauzatzen dira.
- OSANAIA programan 11. domeinuaren betetze egokia.

Hurrengo bilerarako, segurtasun txanda noiz eta nola burutu pentsatzea erabaki da, bai Zumarraga Ospitaleko Barne Medikuntza Unitatean, bai Zumarragako eta Azkoitiako Osasun Zentroetan ere.

2020ko otsailaren 11a.

Bilera Zumarraga Ospitaleko Goizalde eraikinean 13:30etatik 15:00retara izan da. Bileraren hasieran, aurreko bileran hitz egindakoari eutsiz, Zumarraga Ospitaleko Barne Medikuntza Unitatean, segurtasun txanda pazientea ohera sartzen eta ohetik altxatzen den bakoitzean burutuko dela zehazten da. Horretarako, "sakeleko txartelak" sortzea erabakitzen da, non segurtasun txanda burutzeko "check-list" a eskema moduan agertuko den. Taldeko bi erizainek hurrengo bilerarako zirriborroa egitea erabakitzen da (ikus 6. eranskina). Behin zirriborroa aurkeztuta, Osasun Zentroetara moldatuko da hurrengo bileran. Horretarako, "check-list" a etxean dauden paziente kronikoen familiarrei eskura emango zaiela zehazten da.

Bilera bukatzeko, aurreko ebaluazio bileran jasotako datuen laburpena egin da; zehazki, 2019ko abenduko datuak begiratu dira, ebaluazioaren bidez jasotakoak. Azkenik,

ondorio batzuk zehaztu dira, "ekintzen emaitzak eta ondorioen" atalean azaltzen direnak.

2020ko martxoaren 2a.

Goierri-Urola Garaia ESiko erizain gainbegiratzailerak eta BPSO proiektuaren "Co-liderra" denak, M^a Victoria Salgadok, bilerak bertan behera gelditzen direla adierazten du, "koronabirusa" dela eta.

3.3. EBALUAZIO JARDUERAK

Ebaluazio jarduerak, paziente ezberdinen datuak jasoz burutu dira. Horretarako, paziente horien historia klinikoa aztertu da parametro ezberdinak kontuan hartuz.

2020ko otsailaren 19a.

Ebaluazio bilera Zumarraga Ospitaleko Goizalde eraikinean 15:30etatik 18:30etara burutu da. Urtarrileko datuak jaso eta ikertu dira. Alde batetik, Zumarraga Ospitaleko Barne Medikuntza Unitateari dagokionez, hilabeteko azken bost egunetan alta jaso duten eta 65 urtetik gora duten pazienteen datuak jaso dira. Bestetik, Zumarragako eta Azkoitiako Osasun Zentroi dagokienez, hilabeteko azken bost egunetan etxetik etxeko bisita jaso duten eta 65 urtetik gora duten pazienteak aintzakotzat hartu dira. Guztira, 96 pazienteen historia klinikoa aztertu da. Horretarako, taula batean, paziente bakoitzaren sexua, "ID", "CIC", adina, hitzordua eta hitzordu kopurua zehazten dira (ikus 7. eranskina). Ebaluazioa burutzeko, lehenengo pazientearen historia klinikoa ebolutiboan "auditoria BPSO" idatzi da eta pazientearen konfidentzialtasuna bermatzeko, konfidentzialtasunaren kutxatikan "klik" egin da. Paziente bakoitzarekin kontuan hartu beharreko datuak hurrengoak izan dira:

1. Erorketen alerta aktibatua egotea.
2. Erorketen historiala begiratzea; zehazki, azkeneko urtean jauskerarik izan duen ikustea.
3. 11. domeinua azken 6 hilabeteetan eguneratua egotea Osasun Zentroen kasuan, eta ospitaleratzeetan lehenengo 24 orduetan baloratua egotea.
4. 11. domeinuan erorketa arriskuan kontuan hartzen da: alde batetik, pazientearen erorketa arriskua baloratzeko, azken urtean erori bada, edo eroriko baten ondorioz ingesatu badute, edo ibiltzeko edo orekari eusteko zailtasunak baditu, erortzeko arriskuen alerta aktibatuta egon behar da; izan ere, hauek erorketa arriskua handiagotzen dute. Kontuan hartu behar da, pazientearen arrisku faktoreetan "indar muskularraren eta mugimendu artikularraren alterazioa" agertzen bada, erorketa arriskuen balorazioa egitean "abiaduran-orekan alterazioa" aktibatua egon behar dela. Datuen ebaluazioa egiterakoan

ezinbesteko baldintza da.

5. Zainketa planean erorketekin erlazionaturiko jarduerak egotea.


Behin datu guztiak jasota, CarEviD izeneko programa baten bidez datuen erregistroa burutu da. Horretarako, ebaluazio eskuliburua aintzakotzat hartu da, non galdera bakoitzean kontuan hartu beharreko faktoreak zehazten diren (ikus 8. eranskina).

3.4. DIFUSIO JARDUERAK


Difusio jarduera, EHU erizaintza eta medikuntza fakultatean, erizaintzako hirugarren maila ikasten duten ikasleentzako burutu da. Horretarako, Power Point tresnaren bidez eta bertan atxikitutako audioaren bidez aurkezpena egin da. Difusioa "Zainketen Kalitatea eta Segurtasuna" irakasgaian matrikulatutako ikasleentzat bideratuta egon da, aurkezpena "e-gela" plataforman atxikituz.

3.5. EKINTZEN EMAITZAK ETA ONDORIOAK


Burututako ebaluazio bileren datuak bildu dira eta emaitza horietatik ondorio ezberdinak zehaztu dira momentura arte jasotako datuekin. Jarraian, Azkoitiako Osasun Zentroan, Zumarragako Osasun Zentroan eta Zumarraga Ospitaleko Barne Medikuntza Unitatean jasotako datuen grafikoak ageri dira.



Iturria: Zumarraga Ospitaleko BPSO erorketa taldea, Osakidetza.



Iturria: Zumarraga Ospitaleko BPSO erorketa taldea, Osakidetza.



Iturria: Zumarraga Ospitaleko BPSO erorketa taldea, Osakidetza.

3.5.1. Bildutako emaitzen ondorioak

- Zumarraga Ospitaleko Barne Medikuntza Unitatean, erorketak ondo erregistratzen direnean, erorketa arriskua igotzen dela ikusi da.
- Erorketa arriskua igotzen den ahala, erorketa arriskuaren alerta gehiago jartzen da.
- Erregistroan inkongruentziak gutxitzen direnean, erorketa arriskua igotzen da.

- Zumarraga Ospitaleko Barne Medikuntza Unitatean, ospitaleratzean erorketen balorazioa zuzena da.
- Datu gutxi jaso dira oraindik eta emaitzak ikusteko goiz da.

4. GOGOETAZKO JARDUNA

BPSO bezalako proiektu batean parte hartzeak gaitasun ezberdinak garatzen lagundu dit; izan ere, Gradu Amaierako Lan mota honetan, beste lan motetan ikasi ezineko konpententziak garatu ditut. Gainera, ikasle moduan taldeari ikuspuntu berriak eman dizkiodala uste dut. Ikaslea izateak duen alde positiboetako bat, hainbat zerbitzuetan lana nola egiten den ikusten dela da, eta hori oso onuragarria izan daiteke lan egiteko modu egokiena zein den ikusteko.

Alde batetik, diziplina anitzeko talde batean lan egiteko aukera eman dit. Horren bitartez, lantaldean lan egiteak duen garrantziaz jabetu naiz; izan ere, modu horretara pazienteak jasotzen duen arreta, alderdi bio-psiko-sozialean zentratuta dagoela bermatzen da, kalitatezko zaintza sustatuz. Modu horretara, zainketak pazientearen beharretara bideratuta daude. Adibidez, oso garrantzitsua da paziente guztiei txirrina aldamenean uztea, altxatzeak eragin diezaiokeen erorketa ekiditeko.

Bestetik, ziurra den arreta bermatzeko, prebentzioa sustatzea beharrezkoa dela ikusi dut, baita egon daitezkeen arriskuen inguruan jardutea ere. Egun, erorketek erronka handia suposatzen dute osasun sistemarentzako, eta beharrezkoa da osasun profesional guztiek elkarlanean jardutea erronka horri aurre egiteko. Prebentzio estrategia ezberdinak sortzea eta arriskuen balioztapena burutzea beharrezkoa da; horrela, ahalik eta erorketa gehien ekiditeko eta erorketen ondorioz sortzen diren lesioak gutxiagotzeko.

BPSO bezalako proiektuetan erizain guztien parte hartzea sustatzea, etorkizuneko lehia izango dela pentsatzen dut. Osasun profesionalen artean BPSO programaren inguruko informazio gutxi dago, eta difusioa burutzea guztiz garrantzitsua dela uste dut; izan ere, proiektu horretan hautatzen diren gaiak, erizain guztien egunerokotasunean dauden arazoak dira. Proiektu hauekin erizain zainketak bateratzea lortu daitekeela uste dut, ebidentzia zientifikoan oinarritzen diren zainketak bultzatzen dituztelako.

Aipatzeko da, nahiz eta programa horretan parte hartzeak alderdi positiboak izan, badituela zailtasunak ere, bai osasun profesionaleentzat, bai ikaslearentzat. Alde batetik, taldean parte hartzen duten osasun profesional asko ezin dira bileretara joan beraien zerbitzuan dagoen lan karga handia denean; beraz, proiektu hauetan parte hartzeak suposatzen duen esfortzua aintzat hartzeko, organizazio egokia burutzea garrantzitsua

izan daitekeela uste dut. Horretarako, adibidez, bilera egunetan osasun profesional horiek zerbitzuan lan ez egitea. Bestetik, proiektuak duen lan erritmoa eta Gradu Amaierako Lanak duen lan erritmoa ezberdinak direla uste dut. Ikasle moduan, nahiz eta jarduera ezberdinak burutzeko nahia izan, ez dago zure esku eta, horrek, inpotentzia eragiten du. Adibidez, difusio jarduera burutzeko, nahiz eta, taldeko kideekin hitz egin, momentu horretan ez zuten difusio jarduerarik burutzeko asmorik, eta ondorioz, unibertsitatearekin moldatu beharra izan dut, Gradu Amaierako Lanak eskatzen duen jarduera hori gauzatzeko.

Guzti hori esan ondoren, horrelako proiektuak osasun arreta egokia bermatzeko oso beharrezkoak direla uste dut, eta ikasle moduan aukera onuragarria izan dela azpimarratzen dut, gestioaren inguruko jakintzak bereganatu ditudalako eta lantaldeak duen garrantziaz ohartu naizelako.

5. BIBLIOGRAFIA

1. Davies B, Rothwell D, Zarins B, Morris G, Hogg P, Santos J, et al. Herramienta de implantación de buenas prácticas [Internet]. 2. edizioa. Madril: Investén-isciii; 2012 [sartze data 2020ko urtarrilaren 10a]. Eskuragarri: https://rnao.ca/sites/rnao-ca/files/Toolkit_en15.pdf
2. Centros Comprometidos con la Excelencia en Cuidados [sede Web]. Madril: Investén-isciii; [sartze data 2020ko urtarrilaren 10a]. Programa BPSO Internacional. Eskuragarri: <https://evidenciaencuidados.es/bpsoprograma-bpsoprograma-internacional/>
3. Registered Nurses' Association of Ontario. Programa de Directrices sobre Mejores Prácticas de la RNAO (RNAO Best Practice Guidelines Program) [internet]. Toronto. [sartze data 2020ko urtarrilaren 10a]. Eskuragarri: https://rnao.ca/sites/rnao-ca/files/iaBPG_brochure_Spanish.pdf
4. Registered Nurses' Association of Ontario [sede Web]. Toronto: RNAO [sartze data 2020ko urtarrilaren 12a]. About RNAO. Eskuragarri: <https://rnao.ca/about>
5. Centros Comprometidos con la Excelencia en Cuidados [sede Web]. Madril: Investén-isciii [sartze data 2020ko urtarrilaren 10a]. Programa BPSO España. Eskuragarri: <https://evidenciaencuidados.es/bpsoprograma-bpsoprograma-espana/>
6. Centros Comprometidos con la Excelencia en Cuidados [sede Web]. Madril: Investén-isciii [sartze data 2020ko urtarrilaren 10a]. Inicio. Eskuragarri: <https://evidenciaencuidados.es/bpsoprograma-bpsoprograma-espana/>
7. Centro español para los cuidados de salud basados en la evidencia (CECBE). Evidencia en cuidados [sede Web]. Madril: CECBE [sartze data 2020ko urtarrilaren 15a]. Eskuragarri: <http://evidenciaencuidados.es/es/index.php/inicio-portal?start=18>
8. Centros Comprometidos con la Excelencia en Cuidados [sede Web]. Madril: Investén-isciii; [sartze data 2020ko urtarrilaren 10a]. Red BPSO. Eskuragarri: <https://evidenciaencuidados.es/bpsoprograma-bpsoprograma-espana/>
9. EUSKALIT, Gestión Avanzada [sede Web]. Bizkaia: EUSKALIT; 2018 [sartze data 2020ko urtarrilaren 15a]. Premio Vasco a la Gestión Avanzada. Eskuragarri: <https://www.euskalit.net/es/diagnosticos-evaluacion/premio-vasco-gestion-avanzada.html>

10. Osakidetza. Recomendaciones basadas en la evidencia para la Prevención y tratamiento de Caídas [internet]. Osakidetza; 2015 [sartze data 2020ko urtarrilaren 16a]. Eskuragarri:
https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osteba_publicaciones/es_osteba/adjuntos/4_recomendaciones_prevencción_caidas.pdf
11. Osasunaren Munduko Erakundea [sede Web]. Geneva: OME; 2018 [sartze data: 2020ko urtarrilaren 16a]. Caídas. Eskuragarri: <https://www.who.int/es/news-room/factsheets/detail/falls>
12. Osakidetza. Estrategia de seguridad del paciente [internet]. Lehenengo edizioa. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2018 [sartze data 2020ko urtarrilaren 16a]. Eskuragarri: https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/es_def/adjuntos/ESTRATEGIA_SEGURIDAD_DEL_PACIENTE_20_20.pdf
13. FIDISP [sede Web]. Barcelona: FIDISP; 2017 [sartze data 2020ko urtarrilaren 17a]. Los eventos adversos en España: un repaso a los principales estudios. Eskuragarri: <https://fidisp.org/eventos-adversos-estudios/>
14. Estepa del Árbol M, Moyano Espadero C, Pérez Blancas C, Crespo Montero R. Eficacia de los programas de seguridad del paciente. Enferm Nefrol [internet] 2016 [sartze data 2020ko urtarrilaren 17a]; 19 (1). Eskuragarri: http://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S2254-28842016000100008
15. Asociación Profesional de Enfermeras de Ontario. Prevención de Caídas y Disminución de Lesiones derivadas de las Caídas [internet]. Laugarren edizioa. Toronto: RNAO; 2017 [sartze data 2020ko urtarrilaren 15a]. Eskuragarri: https://rnao.ca/sites/rnao-ca/files/bpg/translations/D0021_Prevencion_Caidas_2017.pdf


6. ERANSKINAK

1. Eranskina: formazio bileretan aurrera eramandako jardueren taula.


EKINTZA	DATA	IRAUPENA	LEKUA	PARTAIDEAK	JARDUERA
Lehenengo formazio bilera	2019/12/18	2,30 ordu	Donostiako Ospitalea: Aranzazu eraikineko 3. solairuko 6. sala	<ul style="list-style-type: none"> - 7 bultzatzaile - Javier Ortiz - Erizaintzako zuzendaria - Zaintzen metodologiaren erizain koordinatzailea 	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren aurkezpena - Bultzatzaileen aurkezpena - Erizain zuzendariaren agurra - Zaintzen metodologiaren erizain koordinatzaileak, metodologiaren, erregistratzearen eta ebaluatzearen garrantziaz hitz egin - Bultzatzaileen artean, egonezinak eta zalantzak aurkeztu
